



HERIOTZA ETA BIZIRAUPENAGATIKO PRESTAZIOAK ITSASOAREN ARAUBIDE BEREZIAN



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

HERIOTZA ETA BIZIRAUPENAGATIKO PRESTAZIOAK ITSASOAREN ARAUBIDE BEREZIAN



AURKIBIDEA

05

SARRERA

06

ESKAKIZUN
OROKORRAK

07

ALARGUNTASUN-
PENTSIOA

12

ALDI BATERAKO
ALARGUNTASUN-
PENTSIOA

12

ZURZTASUN-
PENTSIOA

15

SENIDEEN
ALDEKO
PENTSIOA

16

SENIDEEN
ALDEKO
SUBSIDIOA

17

HERIOTZA-
SOROSPENA

17

KASU BEREZIAK

18

NORI ZUZENDU
BEHAR NATZAIO,
PRESTAZIO
EKONOMIKOA
ESKATZEKO?

19

ARAUDIA



SARRERA

/// Gizarte Segurantzaren sistemak babes-eremu bat du familia-galera bat izan duten pertsonentzat. Heriotza eta biziraupenagatiko prestazioak dira.



Prestazio horien bidez, pertsona jakin batzuei beste batzuk hiltzeak eragiten dien premia ekonomikoko egoerari erantzuten zaio, ehorzketa-gastuetatik eta familia-unitatean izandako diru-sarreraren galeratik datorren egoerari.

Hildakoaren senideek bizi duten egoera da babesaren funtsa. Hori dela eta, prestazio ekonomikoak jasotzeko eskubidea hildakoaren senide onuradunen berezko eskubide gisa eratzen da. Prestazio horiek Gizarte Segurantzaren sisteman txertatzen den Itsasoko Araubide Bereziaren babes-ekintzaren barruan sartzen dira.

Genero Indarkeriaren aurkako Babes Osorako Neurriei buruzko Lege Organikoan (abenduaren 28ko 1/2004 Lege Organikoa) ezarritakoaren arabera, ezin izango da berari legokiokeen heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen onuradun izan edozein eratako giza hilketaren doloeko delitua egiteagatik epai irmoz kondenatua izan dena, biktima prestazioaren subjektu eragilea denean.

Gida honen bidez, Itsasoko Gizarte Institutuak, Itsasoko Langileen Gizarte Segurantzako Araubide Bereziaren erakunde kudeatzailea den aldetik, itsasoko langileei eta haien senideei eskubidez jaso ditzaketen prestazio ekonomikoak zabaldu eta ezagutarazi nahi dizkie.



ESKAKIZUN OROKORRAK: SUBJEKTU ETA GERTAKARI ERAGILEA

- Nor da heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen subjektu eragileak, eta zein dira Itsasoaren Araubide Berezian eskubidea izateko bete behar dituen eskakizunak?

/// Heriotza eta biziraupenagatiko prestazioen gertakari eragilea, oro har, heriotzaren eguna da. ///

Subjektu eragileak bete beharreko eskakizunak desberdinak dira, heriotza gertatu zen unean Gizarte Segurantzaren sistemaren barruan zegoen egoeraren arabera, baita heriotza eragin zuen arrazoiaren arabera ere.

EGOERA ERAGILEA HERIOTZAREN UNEAN	HERIOTZA- REN KAUSA	EXIJITUTAKO KOTIZAZIOA
ALTA edo ALTAREN PAREKOA Gizarte Segurantzaren	Gaixotasun arrunta	500 egun heriotzaren aurreko 5 urteetan
	Istripua, lanekoa izan ala ez izan	Ez da gutxieneko kotizazio-aldirik exijitzen
EZ ALTA Gizarte Segurantzaren	Gutxieneko kotizazio-aldia: 15 urte lan-bizitzan zehar	
Erretiroagatiko edo eten- gabeko ezintasunagatiko pentsiodunak	Ez da gutxieneko kotizazio-aldirik exijitzen	

Denbora partzialeko kontratuak dituzten langileen kasuan, eskatutako kotizazio-aldia egiaztatzeke, abuztuaren 2ko 11/2013 Errege Lege Dekretuan ezarritako arauak aplikatuko dira 2013-08-04tik aurrera.

Aurrekoaz gainera, langileak araubide edo kolektibo profesionaletakoak direnean, ko-

fizazioen sarreraren erantzule direnetakoak —hala nola Itsasoko Langileen Araubide Bereziko norberaren konturako langileak—, beharrezkoa izango da subjektu eragileak ere Gizarte Segurantzako kuoten ordainketa egunean izatea.

- **EGOERA BEREZIA:**
Istripuan desagertutako langileak, istripua lanekoa izan ala ez

Istripu baten ondorioz — lanekoa izan ala ez — desagertu diren langileen onuradunek, desagertuak heriotza pentsatzera daraman eta istripua izan eta hurrengo 90 egun naturalean beren berri izan ez den kasuetan, heriotza eta biziraupenagatiko prestazioak jaso ahal izango dituzte, salbu eta heriotza-sorospena. Kasu horietan, gertaera eragilea alda daiteke, eskatzen diren unearen arabera:

- Prestazioak istripua gertatu eta 90 egun naturaleko epea amaitu eta 180 egun naturaleko EPEAN eskatzen badira, gertaera eragilea istripuaren eguna izango da.

- Prestazioak 180 egun naturaleko epea IGAROTA eskatzen badira, heriotza deklaratu beharko da aldeztu aurretik, eta ondorio ekonomikoak prestazioak eskatu aurreko 3 hilabeteetatik aurrera sortuko dira.

ALARGUNTASUN-PENTSIOA

- Zertan datza alarguntasun-pentsioa?

Biziarako pentsioa da, eta Gizarte Segurantzaren Sistemak aitortzen die hildakoarekin ezkontza-lotura izan dutenei edo izateko bikotea izan eta eskatutako baldintzak betetzen dituztenei.

- Nor izan daiteke Itsasoaren Araubide Bereziko alarguntasun-pentsio baten onuradun?

Baldintza orokorrak (afiliazioa, alta eta kotizazioa) betetzeaz gainera, beste eskakizun berezi batzuk egiaztatzen dituztenak:





ONURADUNA	ESKAKIZUNAK
Ezkontide alarguna	Hildakoaren legezko ezkontidea izatea heriotzaren unean Heriotza ezkondu aurreko gaixotasun arrunt baten ondorio bada, honako baldintza hauetako bat egiaztatatu beharko da, gainera: -Elkarrekin seme-alabak izatea -Ezkontza heriotza baino urtebete lehenago sortu izana -Ezkontzaren egunean hildakoarekin bizikidetzatza aldia egiaztatzea eta hori gehi bikote ezkonduaren iraupenaren aldia 2 urte baino gehiagokoa izatea <i>Gutxienez baldintza horietako bat egiaztatzen ez denean, ezkontideak alarguntasuneko aldi baterako prestazioa jaso ahal izango du, baldin eta eskatutako gainerako baldintzak betetzen baditu.</i>
Alargun banandua edo dibortziatua	Betiere berriro ezkondu ez bada edo izatezko bikotea eratu ez badu, eta Kode Zibilean 97. artikuluan aipatzen den konpentsazio-pentsioaren hartzekoduna bada eta eragilearen heriotzagatik hura azkendu bada. * 2008ko urtarrilaren 1a baino lehenagoko banantze judizialaren edo dibortzioaren kasuetan, alarguntasun-pentsiorako eskubidea aitortzeko ez da beharrezkoa izango judizialki dibortziatutako edo banandutako pertsona konpentsazio-pentsioaren hartzekoduna izatea. <i>*2010-01-01etik aurrera, alarguntasun-pentsioaren zenbatekoa konpentsazio-pentsioa baino handiagoa izanez gero, hura murriztu egingo da, harik eta azken horren zenbatekora iritsi arte.</i>
Ezkontza baliogabetzat jota duen alarguna	Kode Zibilean aurreikusitako kalte-ordainerako eskubidea aitortu bada eta berriro ezkondu ez bada edo izatezko bikotea eratu ez bada
Izatezko bikotearen alarguna	Heriotza 2008-01-01aren ondokoa bada. Honako eskakizun hauek egiaztatatu beharko dira: - Heriotza-egunean izatezko bikotea osatzea eragilearekin - Izatezko bikote gisa eragilea hil baino gutxienez bi urte lehenago inskribatu izana. - Heriotza gertatu eta berehala bizikidetzatza egonkorra eta nabarmena egiaztatzea, gutxienez 5 urteko iraupen etengabearekin. - Diru-sarreraren maila jakin bat egiaztatzea
Genero-indarkeriaren biktima banantzearen edo dibortzioaren unean	Kasu horretan, gainerako baldintzak bete ez badira eta banantze judizialaren unean edo Fiskaltzaren txostenaren unean genero-indarkeriaren biktima zela egiaztatzen bada. Ezin izango da alarguntasun-pentsioaren onuradun izan giza hilketa edo lesioen dolo delitua egiten duena, baldin eta delitu horien biktima bada pentsioaren eragilea



Zein da alarguntasun-pentsioaren zenbatekoa?

Pentsioaren zenbatekoa zehazteko, oinarri arautzaileari dagokion ehunekoa aplikatu behar zaio. Pentsioaren oinarri arautzailea honako zatidura honen ondoriozkoa izango da: eragilearen kotizazio-oinarrien batura, 24 hilabetez etenik gabe, zati 28, gertaera eragilearen aurreko 15 urteen artean onuradunek aukeratuta.

Pentsioa lanbideko kontingentzietatik eratortzen bada, oinarri arautzailea soldata errealekin kalkulatu da.

Hala lortutako oinarri arautzaileari ehuneko bat aplikatzen zaio, eta hura aldatu egiten da hildakoaren egoera pertsonalaren eta ekonomikoaren arabera:

- Oro har, oinarri arautzailearen **% 52** izango da
- Oinarri arautzailearen **% 60** izango da, baldin eta onuradunak eskakizunak betetzen baditu:
 - 65 urte edo gehiago izatea.
 - Espainiako edo atzerriko beste pentsio publikoren baterako eskubiderik ez izatea.
 - Norberaren edo besteren kontura lan egiteagatik diru-sarrerarik ez jasotzea, eta une bakoitzean ezarritako gutxieneko alarguntasun-pentsiorako ezarritako diru-sarreraren muga gainditzen duen errentarik, ondare-irabazirik edo jarduera ekonomikorik ez izatea.
- Oinarri arautzailearen **% 70** izango da, familia-kargak daudenean, baldin eta, prestazioa jasotzen ari den bitartean, onuradunak honako eskakizun hauek betetzen dituela egiaztatzen badu:
 - Familia-kargak izatea.
 - Diru-sarrerarik ez izatea.
 - Pertsona izatea diru-sarreraren iturri nagusia

Igoera horrek ez du izaera gogoangarria; aurreko eskakizunak bete bitartean baino ez da mantentzen.

Eskatutako hiru baldintzak aldi berean bete behar dira; haietako bat bete ezean, ehuneko orokorra aplikatu da, eta ondorioak izango ditu baldintza hori betetzeari uzten zaion hilaren hurrengo hileko 1. egunetik aurrera.



Alarguntasun-pentsioa jasotzeko eskubidea duten onuradun gehiago daudenean, honela banatuko da:

- Ezkontza **baliogabe** aitortuta duten onuradunen kasuan, eragilearekin bizi izandako denborarekin proportzioan dagoen zenbatekoan aitortuko da pentsioa, beste onuradun batzuk egon ala ez.
- **Dibortzioa** egonda, pentsioa jasotzeko eskubidea duen onuradun bat baino gehiago bada goaldi berean, onuradunetako bakoitzak eragilearekin bizi izandako denborarekin proportzioan dagoen zenbatekoan aitortzen da pentsioa, eta, nolanahi ere, ezkontide alargunaren aldeko % 40 bermatzen da (legezko banandua barne, baldin eta dibortzioa ez bada), edo, hala badagokio, ezkontide izan gabe, eragilearekin heriotzaren unean bizi zenaren eta alarguntasun-pentsioaren onuradunaren alde.

Zati proportzionala kalkulatzeko, onuradunen bizikidetzatza-aldien batura hartzen da kontuan, eta ez-bizikidetzakoak alde batera uzten dira. **Banandutako edo dibortziatutako** onuradunen kasuan **(2008/01/1a baino lehen) konpentsazio-pentsiorik ez badute**, pentsioa eragilearekin bizi izandako denborarekin proportzioan dagoen zenbatekoan aitortuko da, beste onuradun batzuk egon ala ez.

Pentsioa hamabi ordainsari arruntetan ordainduko da, hilero, eta urtean bi aparteko ordainsari izango dira; aparteko ordainsari horiek ekaineko eta azaroko hilekoekin ordainduko dira, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kasuetan izan ezik, horiek ohiko hamabi hilekoen barruan hainbanatuko baitira.

Gainera, alarguntasun-pentsioan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari (PFEZ) buruzko arauetan ezarritako baldintzen arabera ordaindu beharko dira zergak.

Badago osagarririk?

2021eko otsailaren 4tik aurrera, seme-alaba bat edo gehiago (biologikoak edo adoptatuak) izan dituzten emakumeek eta gizek, erregelamenduz eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte, 27 €-ko osagarria jasotzeko eskubidea izango dute seme-alaba bakoitzeko, gehienez ere 108 €(4 seme-alaba).

Bestalde, lan-etekinik edo bestelako irabazirik jasotzen ez badute, edo horiek jasota ere Estatuko Aurrekontu Orokorren Legean ezarritako muga gainditzen ez badute, prestazioen gutxieneko zenbatekora iristeko behar den osagarria jaso ahal izango dute, betiere Espainiako lurraldean bizi badira eta erregelamenduz zehaztutako baldintzak betetzen badituzte.



Lan egin dezaket edo beste prestazio bat jaso, alarguntasun-pentsioarekin batera?

Alarguntasun-pentsioa, oro har, bateragarria da laneko edozein errentarekin, bai eta erretiroko edo ezintasun iraunkorreko pentsioarekin ere.

Eragilea, heriotzaren egunean, altan edo altaren pareko egoeran ez badago, ez da bateragarria izango Gizarte Segurantzaren edozein araubidetan beste alarguntasun-pentsio bat aitortzearekin, salbu eta araubide bakoitzean egiaztatutako kotizazioak, gutxienez, 15 urtez gainjartzen badira.

Zein dira alarguntasun-pentsioa azkentzeko kausak?

Alarguntasun-pentsioa honako kausaren batengatik azkendu ahalko da:

- Berririo ezkontzeagatik. Hala ere, pentsioa mantendu ahalko da, betiere eskakizunak betetzen badira:
- 61 urtetik gorakoa edo beherakoa izatea eta ezintasun iraunkor absolutuaren edo baliarezintasun handiaren pentsioa aitortuta izatea, edo % 65eko desgaitasuna edo handiagoa egiaztatzea.
- Alarguntasun-pentsioa izango da pentsiodunaren diru-iturri nagusia edo bakarra. Urteko zenbaketan, diru-sarrerara guztien % 75 gutxienez jasotzea dela ulertuko da.
- Ezkontza berriaren edo izatezko bikotearen urteko diru-sarrerak, edozein motatakoak izanda ere, alarguntasun-pentsioa edo -pentsioak barne, ez izatea, urteko zenbaketan, une bakoitzean indarrean dagoen lanbide arteko gutxieneko soldataren zenbatekoa baino bi aldiz handiagoak (aparteko bi ordainsari barne).
- Izatezko bikotea osatzeagatik, berriz ezkontzeagatik diren salbuespen berberekin.
- Eragilearen heriotzaren erruduntasun-deklarazioagatik, epai irmoaren bidez.
- Heriotzagatik.
- Desagertutako langilea istripuan hil ez zela egiaztatzeagatik.
- Kondenagatik, epai irmoan, giza hilketaren delitua egiteagatik, edozein motatakoak dela ere, edo lesio delituagatik, ofenditua pentsioaren eragilea denean, salbu eta haien arteko adiskidetzeta badago. Kasu horietan, aitortu behar zen alarguntasun-pentsioa handitu egingo da. Kasu horietan, aitortu behar zen alarguntasun-pentsioak handitu egingo ditu zurtzasun-pentsioak, halakorik badago.



ALDI BATERAKO ALARGUNTASUN-PRESTAZIOA

Prestazio ekonomikoa da, ezkontide alargunari aldi baterako aitortzen zaiona, baldin eta alarguntasun-pentsioa jaso ezin izan badu eragilearekin ezkontzeak urtebeteko iraupena izan duela ez egiaztatzeagatik edo, bestela, elkarrekin seme-alabarik ez izateagatik, betiere eskatutako gainerako baldintza orokorrak betetzen baditu (alta eta kotizazioa).

Zein da aldi baterako alarguntasun-prestazioaren zenbatekoa, eta zenbat irauten du?

Prestazio honen zenbatekoa ezkontide alargunari legokiokeen alarguntasun-pentsioaren berdina da.

Prestazio horren iraupena aldi baterakoa da; beraz, 2 urteko gehieneko iraupen-epea igarotakoan amaituko da. Hala ere, alarguntasun-pentsioaren kausa berengatik azkendu ahalko da.

ZURZTASUN-PENTSIOA

Zer da zurtasun-pentsioa? Zer eskakizun bete behar dira?

Hildako eragilearen seme-alabei aitortzen zaien pentsioa da, haien filiazioaren izaera edozein dela ere, betiere, oro har, heriotzaren unean, hogeita bat urtetik beherakoak badira edo lanerako ezgaituta badaude eta eskatutako baldintzak betetzen badituzte.

Eragilea gaixotasun arruntagatik hiltzen denean, alta-egoeran edo altaren pareko egoeran egonda, ez da gutxieneko kotizazio-aldiri eskatzen. Gutxieneko kotizazio-aldi bat eskatuko da (15 urte), baldin eta eragilea, hiltzean, altan ez badago.

Nor izan daiteke zurtasun-pentsioaren onuradun?

Pentsio horren onuradunak honako eskakizun hauek betetzen dituztenak izan ahalko dira:

SEME-ALABAK	Hiltzean bete behar dituzten ESKAKIZUNAK
Hildakoaren seme-alabak	21 urtetik beherakoak edo lan egiteko gaitasuna murriztuta duten nagusiak 25 urtera artekoak, besteren konturako edo norberaren konturako lanik egiten ez badute, edo, hala lan eginez gero ere, lortutako urteko diru-sarrerak urteko LGS baino txikiagoak badira. *

* Hala ere, ikasketak egiten ari bada eta ikasturtean 25 urte betetzen baditu, zurtasun-pentsioa hurrengo ikasturtea hasi eta hurrengo hilabeteko lehen egunera arte jasoko du.



SEME-ALABAK

Hiltzean bete behar dituzten ESKAKIZUNAK

Ezkontide alargunak bikote ezkontura ekarritako seme-alabak

Subjektu eragileari exijitzen zaizkion eskakizun berak, gehi:

Ezkontza eragilea hil baino 2 urte lehenago egin izana
Eragilearekin eta bere kontura bizi zela egiaztatzea.
Gizarte Segurantzaren beste pentsio baterako eskubiderik ez izatea, edo mantenua emateko betebeharra eta aukera duen seniderik ez izatea
Beste gurasoa, eragilearen ezkontidea ez dena, hilda egotea edo guraso ezezaguna izatea

Eragilearen seme-alabak, baina hura hil ondoren jaio direnak

Prestazioaren jatorria jaiotza-data da

Zein da zurtasun-pentsioaren zenbatekoa?

Pentsioaren zenbatekoa zehazteko, oinarri arautzaileari (alarguntasun-pentsiorako bezala kalkulatu) ehuneko bat aplikatuko zaio.

- Oro har, oinarri arautzailearen % 20 izango da onuradun bakoitzarentzat. Subjektu eragile berarengandik eratorritako heriotzagatik eta biziraupenagatik pentsio guztien baturak ezin du oinarri arautzailearen % 100 gainditu
- Hala ere, % 20ko ehunekoa alarguntasunaren % 52ko ehunekoarekin handitu ahalko da erabateko zurtasunaren kasuan edo alarguntasun-pentsioaren onuraduna erailteagatik dolo delituagatik epai irmoaren bidez kondenatzen denean.

Nork jaso dezake pentsio hori eta noiz kobratzen da?

EPrestazioa onuradunaren adinaren arabera jasoko da:

- 18 urtetik beherako onuraduna bada, bere legezko tutorea.
- 18 urte baino gehiago izanez gero, zuzenean ordainduko da, judizialki ezgaitutaz jo ez bada.

Zurtasun-pentsioa hamabi ordainsari arruntetan ordainduko da, hilero, eta urtean bi aparteko ordainsari izango dira; aparteko ordainsari horiek ekaineko eta azaroko hilekoekin ordainduko dira, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kasuetan izan ezik, horiek ohiko hamabi hilekoen barruan hainbanatuko baitira.

Pertsona fisikoen errentaren gaineko zerga (PFEZ) ordaintzetik salbuetsita egongo da.



Lan egin dezaket edo beste pentsio bat jaso zurtasun-pentsioarekin batera?

Zurtasun-pentsioa bateragarria da umezurtzen lan-errentekin, onuraduna 21 urtetik beherakoa denean horien zenbatekoa edozein dela ere.

21 urtetik gorakoentzat eta 25 urte bete arte, zurtasun-pentsioa bateragarria da umezurtzaren norberaren edo besteren konturako

lanarekin, baldin eta lortzen dituen diru-sarrerak, urteko zenbaketan, lanbide arteko gutxieneko soldatarako indarrean dagoen zenbatekoa baino txikiagoak badira, urteko zenbaketan.

Oro har, honako ondorio hauek eragiten ditu:

Onuradunaren egoera	Bateragarritasuna eta bateraezintasuna lanarekin
21 urtetik beherakoak edo lan egiteko gaitasuna murriztuta dutenak	Bateragarria, diru-sarreraren mugarik aplikatu gabe.
21 urtetik gorakoa, ez ezindua	Bateraezina urteko LGSa baino urteko diru-sarrera handiagoekin.

Onuradunaren egoera	Bateragarritasuna eta bateraezintasuna beste prestazio batzuekin
Ezintasun iraunkorragatik pentsioduna	Bateraezina ezintasun beragatik Gizarte Segurantzako beste pentsio batekin; bataren edo bestearen artean aukeratu ahalko dute.
Zurtasun-pentsiorako eskubidea guraso bakoitzagatik	Bateragarria izango da bi pentsioak kobratzea, baina haietako bat baino ezingo da areagotu alarguntasun-ehunekoarekin.
Kargura dagoen seme edo alaba desgaituagatik esleipen ekonomikoa	Bateragarria zurtasun-pentsioarekin.

Eta lan egiteari uzten badiot, berreskura dezaket nire pentsioa?

Pentsiorako eskubidea berreskuratu ahalko da lan-kontratua azkentzen denean, norberaren konturako jardura amaitzen denean edo langabeziako, aldi baterako ezintasuneko, haurdunaldiko arriskuko edo amatasuneko prestazioen bat amaitzen denean. Gainera, berreskuratu ahal izango da jardura egiten edo prestazio bat jasotzen jarraitzen badu eta batetik edo bestetik eratorritako diru-sarrerak ezarritako mugak gainditzen ez badituzte.



Zein dira zurtasun-pentsioaren kausak?

Zurtasun-pentsioa honako kausaren batengatik azkendu ahalko da:

- Kasu bakoitzean ezarritako adina bete delako, 21 edo 25 urte.
- Pentsiorako eskubideak ematen zion ezintasuna amaitu delako
- Adopzioagatik.
- Heriotzagatik
- Ezkontzeagatik (salbuespenak izan ezik).
- Desagertutako langilea istripuan hil ez zela egiaztatzeagatik.

SENIDEEN ALDEKO PENTISIOA

Zertan datza senideen aldeko pentsioa eta nor izan daiteke onuradun?

Prestazio ekonomiko bat da, hildakoarekin bizi izan diren eta ekonomikoki mendekotasuna izan duten senideei ematen zaiena, baldin eta eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte. Pentsio horren onuradunak honako eskakizun hauek betetzen dituzten eragilearen senideak izan ahalko dira:

ONURADUNAK	ESKAKIZUN BEREZIAK	ESKAKIZUN OROKORRAK
Bilobak eta anai-arrebak	18 urtetik beherakoak edo lanerako gaitasuna erabateko baliarezintasun edo baliarezintasun handiko mailan baloratutako ehunekoan murriztuta duten nagusiak. 22 urtetik beherakoak, irabazizko lanik egiten ez dutenean edo, egiten badute ere, urtean indarrean dagoen LGSaren % 75eko muga gainditzen ez dutenean.	- Eragilearekin eta haren kontura bizi izana heriotza baino 2 urte lehenago - Pentsio publikorako eskubiderik ez izatea
Ama eta amonak	Alargunak, ezkongabeak, judizialki bananduak, dibortziatuak edo ezkonduak, 60 urtetik gorako senarra edo lanerako ezindua dutenak.	- Bizirauteko baliabiderik ez izatea, LGSaren adinako edo gutxiagoko diru-sarrerak izateagatik
Aita eta aitonak	60 urte dituztenak edo lan ororako ezindua.	- Mantenua emateko bete-beharra eta aukera duen seniderik ez izatea
Seme-alabak eta anai-arrebak	Hildakoak egiaztatu beharreko baldintzak Eskatzaileak egiaztatu behar dituen eskakizunak	Erretiroko edo ezintasun iraunkorreko pentsioduna izatea, kotizaziopeko modalitatean. -45 urtetik gorakoak -Ezkongabeak, dibortziatuak, judizialki bananduak edo alargunak. -Eragilea zaintzeko dedikazio luzatua egiaztatzea.



Zein da pentsio horren zenbatekoa?

Pentsioaren zenbatekoa zehazteko, oinarri arautzaileari (alarguntasun- eta zurtasun-pentsioaren kasuan bezala kalkulaturik) ehuneko bat aplikatuko zaio; kasu horretan, % 20 onuradun bakoitzarentzako oinarri arautzailean, ezarritako gehieneko mugarekin. Zenbateko hori aldatu egingo da, eskubidea duten zenbait onuradun badaude.

Hamabi ordainsari arruntetan ordainduko da, hilero, eta urtean bi aparteko ordainsa-

ri izango dira; aparteko ordainsari horiek ekaineko eta azaroko hilekoekin ordainduko dira, lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kasuetan izan ezik, horiek ohiko hamabi hilekoen barruan hainbanatuko baitira.

Pentsioan, pertsona fisikoen errentaren gaineko zergari (PFEZ) buruzko arauetan ezarritako baldintzen arabera ordaindu beharko dira zergak.

Zein dira senideen aldeko pentsioa azkentzeko kausak?

Az kentzeko kausak hildakoaren ahaidetasun-mailaren arabera izango dira, hau da, **biloba eta anai-arreben kasuan**, zurtasun-pentsioaren arrazoi berengatik azkenduko da; **pentsio-dunaren aurreko ahaide, seme-alaba eta anai-arreben kasuan**, berriz, pentsio hori jasotzeko eskubidea ezkontzeagatik edo hiltzeagatik amaituko da.

SENIDEEN ALDEKO SUBSIDIOA

Zertan datza senideen aldeko subsidioa eta nor izan daiteke onuradun?

Prestazio ekonomiko bat da, hildakoarekin bizi izan diren eta ekonomikoki mendekotasuna izan duten senideei ematen zaiena, baldin eta eskatzen diren baldintzak betetzen badituzte.

Subsidio horren onuradun izan daitezke:

25 urtetik gorako semea edo alaba, 22 urtetik gorako anaia edo arreba ezkongabea, alarguna, banandua edo dibortziatua, senideen aldeko pentsioduna izateko baldintzak egiaztatu ezin dituenak.

Gainera, honako eskakizun hauek bete beharko dituzte:

Eragilearekin 2 urtez bizi izana, pentsio publikorako eskubiderik ez izatea, bizibiderik ez izatea eta mantenua emateko betebeharra eta aukera duen seniderik ez izatea.

Zein da senideen aldeko subsidioaren zenbatekoa?

Subsidioaren zenbatekoa oinarri arautzailearen % 20 aplikatuz lortzen da, eta hura alarguntasun-pentsiorako kalkulatu den modu berean kalkulatu da. Subsidio hori alarguntasun- eta zurtasun-pentsioekin egin ahal da bateragarri. Hala ere, oro har, bateraezina izango da edozein pentsio publikorekin, eta

haietako bat aukeratu beharko da. Baterazina izango da urteko zenbaketan LGSa gainditzen duten diru-sarrerak jasotzearekin. Subsidioak 12 hilabeteko iraupena izango du gehienez, eta hamabi hilabeteko hilekoetan ordainduko da, urtean aparteko bi ordainsarirekin.



HERIOTZA-SOROSPENA

Zer da heriotza-sorospena? Nork eska dezake?

Heriotza-sorospena ehorzketaren gastuei aurre egiteko diru kopuru finko bat da. 46,50€ izango da. Hildako pertsonak altan edo altaren pareko egoeran egon behar zuen, edo erretiroko pentsioduna edo kontribuzio-mailako ezintasun iraunkorreko pentsioduna izan behar zuen.

Ehorzketako gastuak ordaindu dituenak eskatu ahal izango du. Kontrako frogarik ezean, gastu horiei honako hauek egin dietela aurre ondorioztatzen da, honako hurrenkera honi jarraikiz: ezkontide alarguna; izatezko bikote bateko alarguna; hildakoaren seme-alabak eta senideak, berarekin bizi izan direnak.

Eskatzen duten onuradunek, eskabidea egiten dutenean, araudi erregulatzaileak eskatzen dituen agiriak aurkeztu beharko dituzte (NAN, AIZ, hildakoaren heriotza-aktaren ziurtagiria, besteak beste).

EGOERA BEREZIAK

Lan-istripuagatik edo lanbide-gaixotasunagatik kalte-ordaina

Heriotza lan-istripuak edo lanbide-gaixotasunak eragin badu, onuradun jakin batzuei, dagokien pentsioaz gain, honenbesteko prezioko kalte-ordaina emango zaie:

ONURADUNAK	ONARRI ARAUTZAILEAREN ZENBATEKOA	BATERAGARRITASUNA
Alarguntasun-pentsioaren onuradunak	6 hileroko (onuradun bat baino gehiago badago, alarguntasun-pentsioa bezala banatuko da kalte-ordaina)	Alarguntasun-pentsioarekin bateragarria da.
Alarguntasun-pentsioaren onuradunak	Hileroko 1 (gehi pentsioaren oinarri arautzaileko 6 hilerokoak umezurtzen artean banatzearen ondoriozko kopurua, ezkontiderik, izatezko bikotekiderik edo kalte-ordaina jasotzeko eskubidea duen ezkontiderik ez badago edo gurasoen artean ezkontzarik izan ez bada)	Bateragarria da zurtasun-pentsioarekin.
Hildakoaren ardura- pean zegoen aitak eta/edo amak, baldin eta heriotzagatik eta biziraupenagati- ko pentsioa jasotzeko eskubidea duen beste seniderik ez badago, eta euren ere horre- tako eskubiderik ez badute	9 hileroko (aurreko ahaide bat). 12 hileroko (aurreko bi ahaideak). (salbuespenak daude hildako pertsona ezintasun iraunkorreko pentsioduna izanez gero)	EZ da bateragarria heriotza eta biziraupenagatik pentsioekin.

Errekargua laneko segurtasun- eta higiene-neurrien faltagatik

Lan-istripuen eta lanbide-gaixotasunen kasuetan, laneko arriskuak prebenitzeko neurririk ezak eragindako lesioak.

Heriotzagatik edo biziraupenagatik prestazio ekonomikoak % 30etik % 50era igoko dira, hutsegitearen larritasunaren arabera. Errekargu hori ordaintzeko erantzukizuna enpresaburu arau-hausleari dagokio zuzenean, eta pentsioa jasotzen den aldi osoan iraungo du.



NORI ZUZENDU BEHAR NATZAI- HERIOTZA ETA BIZIRAU- PENAGATI- KO PRESTAZIOAK ESKATZEKO?

Eskaera zure helbideari dagokion Itsasoko Gizarte Institutuko probintziako edo tokiko zuzendaritzara bidali behar duzu. Prestazio horiek izapidetzeko, eskatu nahi duzun heriotza eta bizirau-penagatiko prestazioen eskabide ofizialaren eredu-a bete beharko da, eta eskabidearen eredu-a adierazten den dokumentazio pertsonala eta espezifiko-a aurkeztu.

Aurrez aurre egin dezakezu, baina zerbitzu bat ere baduzu, Erregistro Elektronikoen bidez, Gizarte Segurantzaren Egoitza Elektronikoa: <https://sede.seg-social.gob.es>. Zerbitzu horretan sartzeko, ziurtagiri elektronikoa edo cl@ve iraunkorra izan behar duzu. Horrez gain, eskaera-eredu normalizatuak, ziurtagiriak eta aitortpenak eskura ditzakezu, Gizarte Segurantzaren web-orriaren bidez: www.seg-social.es.

ALICANTE C/ Faro de Santa Pola, 2, 03001 96 511 35038 alicante.dirprov.ism@seg-social.es	ALMERÍA C/ Puerto Pesquero, s/n, 04002 95 062 02 11 almeria.dirprov.ism@seg-social.es	ILLES BALEARS C/ Moll Vell, 15, 07012 97 172 56 06 illesbalears.dirprov.ism@seg-social.es
BARCELONA C/ Albareda, 1 - 13, 08004 93 443 96 00 barcelona.dirprov.ism@seg-social.es	BIZKAIA C/ Virgen de Begoña, 32, 48006 94 473 90 00 bizkaia.dirprov1.ism@seg-social.es	CÁDIZ Avda. de Vigo, s/n, 11006 95 625 17 03 cadiz.dirprov.ism@seg-social.es
CANTABRIA CAvda. de Sotileza, 8, 39009 94 221 46 00 santander.dirprov.ism@seg-social.es	CARTAGENA C/ Muelle Alfonso XII, s/n, 30202 96 850 20 50 cartagena.dirprov.ism@seg-social.es	CASTELLÓN Pl. Miquel Peris i Segarra, s/n, 12100 96 428 30 72 castellon.dirprov.ism@seg-social.es
CEUTA C/ Muelle Cañonero Dato, 20, 51001 95 650 02 40 ceuta.dirprov.ism@seg-social.es	GIJÓN C/ Celestino Junquera, 19, 33201 98 532 72 00 gijon.dirprov.ism@seg-social.es	GIPÚZKOA C/ Hermanos Otamendi, 13, 20014 94 348 32 00 gipuzkoa.dirprov.ism@seg-social.es
HUELVA Avda. Hispanoamérica, 9, 21001 95 925 74 11 huelva.dirprov.ism@seg-social.es	A CORUÑA C/ Ramón y Cajal, 2, 15006 88 190 98 00 acoruna.dirprov.ism@seg-social.es	LAS PALMAS C/ León y Castillo, 322, 35007 92 849 46 45 laspalmas.dirprov.ism@seg-social.es
LUGO C/ Rda. Músico Xosé Castiñeiras, 10 - bajo, 27002 - 98 222 50 10 lugo.dirprov.ism@seg-social.es	MADRID C/ Churruca, 2, 28004 91 591 99 00 madrid.dirprov.ism@seg-social.es	MÁLAGA C/ Pasillo del Matadero, 4, 29002 95 195 57 45 malaga.dirprov.ism@seg-social.es
MELILLA AAvda. de la Marina Española, 7, 52001 95 176 43 00 melilla.dirprov.ism@seg-social.es	TENERIFE Avda. de Anaga, s/n, 38001 92 259 89 00 tenerife.dirprov.ism@seg-social.es	SEVILLA C/ Fernando IV, 1, 41011 95 428 60 28 sevilla.dirprov.ism@seg-social.es
TARRAGONA C/ Francisc Bastos, 19, 43005 97 719 10 00 tarragona.dirprov.ism@seg-social.es	VALENCIA Av. del Port, 300, 46024 96 335 99 00 valencia.dirprov.ism@seg-social.es	VIGO Avda. Orillamar, 51, 36202 98 621 61 00 vigo.dirprov.ism@seg-social.es
VILLAGARCIA Avda. de la Marina, 23, 36600 98 656 83 00 vilagarcia.dirprov.ism@seg-social.es		



ARAUDIA

8/2015 Legegintzako Errege Dekretua, urriaren 30ekoa, Gizarte Segurantzaren Lege Orokorra-ren Testu Bategina onartzen duena.

47/2015 Legea, urriaren 21ekoa, Itsasoko eta Arrantzako Sektoreko Langileen Gizarte-babesa arautzen duena.

3158/1966 Dekretua, abenduaren 23koa, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko presta-zio ekonomikoen zenbatekoa eta horiek jasotzeko baldintzak ezartzen dituen Araudi Orokorra onartzen duena.

1967ko otsailaren 13ko Agindua, Gizarte Segurantzako Araubide Orokorreko heriotza eta bizi-raupenagatiko prestazioen ezarpenerako eta garapenerako arauak ezartzen dituen.

1972ko uztailaren 31ko Agindua, Gizarte Segurantzako Araubide orokorreko prestazioen arloan ekainaren 23ko 646/1972 Dekretua aplikatzeko eta garatzeko arauak ematen dituen.

1647/1997 Errege Dekretua, urriaren 31koa, Gizarte Segurantzaren sistema sendotu eta arrazionalizatzeko Legearen (uztailaren 15eko 24/1997 Legea) zenbait alderdi garatzeko.

1/2004 Lege Organikoa, abenduaren 28koa, Genero Indarkeriaren aurka Babesteko Neurriei buruzkoa.

3/2019 Legea, martxoaren 1ekoa, Genero-indarkeriaren eta emakumeen kontrako beste indar-keria mota batzuen biktima direnen seme-alaben zurtasun-egoera hobetzeko.

28/2018 Errege Lege Dekretua, abenduaren 28koa, Pentsio publikoak goratzeko eta gizarte-, lan- eta enplegu-arloko beste premia-
zko neurri batzuei buruzkoa.

3/2021 Errege Lege Dekretua, otsailaren 2koa, otsailaren 2koa, Gizarte Segurantzaren eta eko-nomiaren arloetan genero-arrakala txikitzeko eta beste gai batzuetarako neurriak onartzen di-tuen.





INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

Argibide gehiagorako

Webgunea



Egoitza Elektronikoa



INKLUSIO, GIZARTE SEGURANTZA ETA MIGRAZIO MINISTERIOA

Argitalpen hau Inklusio, Gizarte Segurantzaz eta Migrazio Ministerioaren argitalpen-programan sartzen da (2/2020 Errege Dekretua, urtarrilaren 12koa)

Agitalpen honetan, klororik gabeko paper birziklatua erabili da, kontratazio publikoaren ingurumen-irizpideei jarraikiz

<https://cpage.mpr.gob.es>



GOBIERNO
DE ESPAÑA

MINISTERIO
DE INCLUSIÓN, SEGURIDAD SOCIAL
Y MIGRACIONES

SECRETARÍA DE ESTADO
DE LA SEGURIDAD SOCIAL
Y PENSIONES



INSTITUTO SOCIAL
DE LA MARINA

Nipo papel: 123-21-095-X
Nipo digital: 123-21-094-4
Depósito legal: M-33199-2021